



AIARAKO UDALAK 2022ko EKAINAREN 23an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera
jauna

Susana Martín Benavides andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendibil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Arespaldintzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita biko ekainaren hogeita hiruan, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da modu telematikoan ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

EZ DIRA BERTARATU

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Iratxe Parro Uzquiano andrea

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko maiatzaren 19an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, oinarritzko gizarte-zerbitzua emateko.

Udalbatzako kideei berri eman zaie gai honetan 2022ko ekainaren 14ko Informazio Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Batzordearen aldeko irizpena.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 8 kidek) aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,



IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatu behar da oinarrizko gizarte-zerbitzuak garatu eta jarraitze aldera lankidetzeta-tresna bat zehazteko.

IKUSI DA.- Araiako Udalaren eskumeneko oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko lankidetzaren esparruan Aiara eta Okondo udalerrietako biztanleei ematen zaie arreta.

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiak udal honi 2022 urterako Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren artean lankidetzeta-hitzarmenaren eredia bidali dio.

IKUSI DA.- 2022ko ekainaren 14ko Informazio Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak, bertaratutako kide guztien aho batez (Udalbatzako 11 kidedatik 8), honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Arabako Foru Aldundiak udal honi 2022 urterako bidalitako Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren artean lankidetzeta-hitzarmenaren eredia. Hitzez hitz hala dio:

**“ARABAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE ZERBITZUETAKO SAILAREN ETA
AIARAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA OINARRIZKO
GIZARTE-ZERBITZUAK EMATEKO**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko ____aren ____ (e)(a)n

Alde batetik, Emilio Sola Ballojera jauna, Gizarte Zerbitzuetako foru diputatua, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa, Ahaldu Nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren bidez egindako izendapenaren babesean eta Arabako Foru Aldundiaren Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak emandako ahalmenen arabera.

Bestetik, Gentza Alamillo Udaeta jauna, Aiarako Udaleko alkate-udalburua. Alderdi guztiek beren karguen berezko eskumenekin eta zereginekin bat dihardute eta elkarri onartzen diote dokumentu hau sinatzeko gaitasuna eta, gainera,

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa. Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, ongizate-estatuaren ardatzak, botere publikoen eskakizunak arautzen ditu eskubidearen titular guztiei gizarte-prestazioak eta -zerbitzuak eskura izan eta lortzeko eskubidea bermatze aldera, lege horretan bertan eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan zehazten diren baldintzetan. Horretarako, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapari erreparatuko zaio, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren esparruan Arabako Foru Aldundiak eta lurralde historikoko udalek 2016ko uztailaren 22an baietsi ondoren.



Bigarrena.- *Legearen 29. artikulua xedatutakoaren arabera, oinarritzko gizarte-zerbitzua arretarako balio eta diziplina anitzeko unitatea da, eta Udaleko gizarte-zerbitzuetan txertatzen da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan herritarrentzako lehen sarbide-puntu izan dadin. Oinarritzko gizarte-zerbitzuen zeregin nagusia da bere jarduketaren lurralde-eremuan, gizarte-zerbitzuen esparruan arreta izan dezaketen gizarte-beharrak antzeman eta arreta ematea, eta bere eraginpeko eremu geografikoan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako maila desberdinetara iristeko koordinatu eta kudeatzea. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek, berez edo elkartuta, oinarritzko gizarte-zerbitzua izan beharko dute.*

Hirugarrena.- *Aurrekoaren arabera, Aiarako Udalak oinarritzko gizarte-zerbitzua du.*

Laugarrena.- *Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31. artikulua aipatutakoaren ildotik, aldundiek lurralde guztian udal-eskumeneko zerbitzuen prestazio osoa eta egokia ziurtatu behar dute, eta testu bereko 36. artikuluekin bat etorritik, aldundiek, besteak beste, ikuspegi juridiko, ekonomiko eta teknikoak udal-zerbitzu horietan lagundu eta elkarlanean jardun behar dute.*

Bosgarrena.- *2022 ekitaldiko Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrak abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauaren bidez onetsi ziren, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrekontuan 81204.G/231814/46290814 partida izenduna (Oinarritzko-gizarte-zerbitzuak. Aiarako Udalarekin hitzarmena) ageri da 52.480,00 euroko kredituarekin (3.2.5).*

Seigarrena.- *Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak xedatzen du bere printzipio orokorren artean erantzukizun publikoa eta aipatzen du botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioak eta zerbitzuak eskuratu eta lortzea bermatu beharko dutela, elkarren arteko koordinazio- eta kooperazio-printzipio orokorrek batera.*

Zazpigarrena.- *Bi alderdiak ados daude lankidetzatresna bat zehaztu behar dela, 2022 ekitaldian programa hau garatu eta jarraitzeko baliabide egokia delakoan. Halaber, ados daude hitzarmena funtsatzeko eskakizunetan. Hala, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute honako klausula hauen arabera:*

KLAUSULAK

Lehenengoa.- *Hitzarmen honen xedea da Aiara eta Okondo udalerrietako herritarren arretarako Aiarako Udalaren eskumeneko oinarritzko gizarte-zerbitzuak emateko lankidetzatresna zehaztea.*

Bigarrena.- *Oinarritzko gizarte-zerbitzua balio eta diziplina anitzeko jarduketa-unitateek osatzen dute, eta helburu nagusia da ekintza komunitarioa garatzea. Horretarako, koordinatu eta kudeatzeaz gain, erraztasunak emango dituzte pertsonak Gizarte Zerbitzuetako Sistemak daudenak lortzeko eta autonomiarekin, gizarteratzearekin eta gizarte-larrialdiko edo babesgabeziako egoerekin lotutako beharrei erantzuteko. Arreta berezia jarriko zaio mugartean arrisku-egoerak prebenitzeari. Hala, honako zeregin hauek beteko dira:*



- a) *Pertsonen eta familiei honako hauen berri ematea:*
- *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak: zer behar eta egoerei erantzuteko diren; hartzaileak; lortzeko eskakizunak eta prozedurak; bidezkoa bada, aplikatzen den prezio publikoa; ematen duten arretaren intentsitatea; prestazio eta zerbitzu desberdinak konbinatzeko aukera; etab.*
 - *Euren eskubideak eta betebeharrak. Bereziki azpimarratzen da beharren balorazioa izateko eskubidea, eta, egokia bada, gizarte-diagnostiko eta arreta-plan pertsonalizatua (APP) edo banako arreta-plana (BAP) izateko eskubidea.*
 - *Nahasitako pertsonentzat prestazio eta zerbitzu bakoitzaren kostuak eta onurak, ez ekonomiaren ikuspegitik bakarrik, bai eta denbora, osasuna eta lan-gainkarga kontuan hartuta ere.*
 - *Eskaeraren bilakaera eta egoera.*
- b) *Pertsonaren beharren eta gaitasunen eta haren testuinguruaren hasierako balorazioa egitea eta balorazio batean oinarrituta esku hartu eta jarraitu behar dela ondorioztatzen denean, hasierako gizarte-diagnostikoa egitea. Horretarako, ahal den neurrian, pertsona eta familia interesdunen eta beren babes-sarearen partaidetza izango da.*
- c) *Pertsona edo pertsonak bideratzea prestazio ekonomiko eta/edo zerbitzu egokienetara, edo, egokia bada, prestazioen eta zerbitzuen arteko konbinazio egokienera, bere beharrianak asetzeko eta/edo, bidezkoa bada, beste arreta-sistema edo -politika batzuetako baliabideetara.*
- d) *Diagnostikoak hala gomendatzen badu, kasuaren erreferentziazko profesional gisa jardutea, interesdun eta/edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin, APPa egiteko, eta gerora kudeatzea, ukitutako beste sistema eta eragile batzuekin koordinatuta. APPak edo BAPak aurreikusitako jarduketak abian jarriko ditu, eta aldizka jarraitu eta ebaluatuko ditu. Hori guztia egingo da, indarreko legediaren arabera, kasuaren erantzukizuna beste erreferentziazko profesional bati pasatzen ez zaionean.*
- e) *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko beharrezkoak diren izapide-, kudeaketa- eta koordinazio-lan guztiak egitea.*
- f) *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak arreta emateko eta babesteko eskatzen duten herritarren gizarte-beharrak antzematea eta jarduketak hastea, bai eta, bidezkoa bada, beste arreta-sistema batzuetara bideratzea ere.*
- g) *Agintzen zaizkion lehen arretako gizarte-zerbitzuak emateko funtzioak garatzea eta bere jarduketa-eremuan esku hartzeko oinarritzko prozeduraren aplikazioa bermatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19. artikulua xedatutakoarekin bat etorriz; aplikaziozkoak bazaizkio, foru-araudian esleitutako zereginetan elkarlanean jardutea.*

Era berean, oinarritzko gizarte-zerbitzuak honako funtzio hauek gauzatuko ditu:

- a) *Gizarte-beharrak asetzean ager daitezkeen disfuntzioak edo urritasunak antzematea.*



- b) *Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioaren Euskal Sistemaren esparruan homogeneizazio-eta sistematizazio-irizpideekin informazioa egitea.*
- c) *Gauza dezakeen antzeko beste edozein funtzio, baldin eta berariaz esleitzen bazaio.*

Hirugarrena.- *Zerbitzua ezartzeko, behar bezala garatzeko eta helburuak betetzeko, alderdi sinatzaileek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:*

Aiarako Udalak

- *Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan jardutea oinarritzko gizarte-zerbitzuak koordinatzeko eginkizunean eta unitate horien nahiz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen arteko komunikazio egokia sustatzea.*
- *Zerbitzuaren funtzionamenduari buruz eskatzen zaizkion datu guztiak ematea.*
- *Foruko zerbitzuetan eta programetan parte hartzea, eremua garapen-esparrua bada.*
- *Zerbitzu bakoitza fisikoki kokatzeko lokalak eskuratzea.*
- *Egiazko kostuaren eta Foru Administrazioak finantzatzen duenaren arteko aldea kontuan hartuta, oinarritzko gizarte-zerbitzuak finantzatzen laguntzea.*

Aldundiaren Gizarte Politiketako Sailak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea organismo autonomoaren bidez

- *Oinarritzko gizarte-zerbitzuari informazioa, laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea, behar bezala funtziona dezan.*
- *Oinarritzko gizarte-zerbitzuen unitateetako langileak Gizarte Politiketako Sailaren trebakuntza- eta birziklatze-planetan txertatzea.*
- *Lanaldi osorako Gizarte Lanean diploma duen profesional bat finantzatzen laguntzea.*

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak goian aipatutako langilearen egiazko ordainsari-kostuaren % 80 finantzatzen parte hartuko du. Kostu horren barruan sartuko dira ordainsari gordina, antzinatasuna eta gizarte-kostuak, baina 2022 ekitaldirako kontzeptu bakoitzeko ordainsari-kostuen gehienekoa ipiniko da eta, xede horrez, aintzat hartuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean lanbide-kategoria bera duen teknikaria. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean antzeko funtzionario-profilik ez badago, Arabako Foru Aldundian lanbide-kategoria horri dagokion oinarritzko maila kontuan hartuko da. Era berean, benetako joan-etorrien gastuak finantzatzen lagunduko da, gehienez, 1.694,13 eurora arte eta kilometro bakoitzeko 0,29 eurora arte.

Laugarrena.- *Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Aiarako Udalari ordaindu behar dion gehieneko finantzaketa osoaren zenbatekoa zehazteko, gastu-kontzeptu bakoitzeko ordainsarien kostuaren gehienekoa honako modu honetan banatzen da:*

Gizarte Lanean diploma duen langilea:

- *Ordainsari gordina 45.220,67 euro/urte*
- *Antzinatasuna 721,64 euro/urte/hirurteko*
- *Gizarte-kostuak:*
 - *Gizarte Segurantza (kontratu-motaren arabera kalkulatu da)*
 - *Elkarkidetzak 1.267,14 euro/urte*



Hitzarmenak irauten duen bitartean ordainsarien aldaketen ondorioz balizko aldaketa gorabehera, aurreko zenbatekoei eta Aiarako Udaleko oinarritzko gizarte-zerbitzuko langilearen egiazko kostuei erreparatuta, Arabako Foru Aldundiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez, Aiarako Udalari 52.480,00 euro ordainduko dizkio gehienez 2022 ekitaldiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde aurrekontuaren 81204.G/231814/4629014 partidaren kargura (Oinarritzko gizarte zerbitzuak. Aiarako Udalarekin hitzarmena). Aiarako Udalaren esku geldituko da kostu guztiaren % 100 ordaintzeko gainerako finantzaketa.

Bosgarrena.- Gizarte Politiketako Sailak Aiarako Udalari egindako ekarpena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez ordainduko da aurreko hiruhilekoetan, azkeneko hiruhilekoan izan ezik. Orduan, % 70 ordainduko da, eta gainerakoa azken likidazioa egin ondoren.

Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo 15 egunen buruan, bidezkoak diren zenbatekoak erregularizatzeari ekingo zaio.

Aiarako Udalak beranduenen 2023ko urtarrilaren 31n honako justifikazio-dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- *Organo eskudunaren ziurtagiria (idazkaria, kontu-hartzailea, diruzaina), langilearen gastuei buruzko zerrendarekin ordainsari-kontzeptuen arabera banatuta, bai eta Gizarte Segurantzaren enpresaren kostua ere, eta horien guztien ordainketak.*
- *Langilearen nominak*
- *Gizarte-aseguruak (TC1 eta TC2 dokumentuak)*
- *Elkarkidetzaren ordainagiriak*
- *Hileko kilometroen gastuei buruzko egoera-orria daten arabera banatuta (kilometroak nominan ordainduko dira)*
- *Erregistro Elektronikoaren bidezko edozein dokumentazio edo frogagiri aurkeztean, organo eskudunaren (idazkaria, kontu-hartzailea, diruzaina) erantzukizunpeko adierazpena erantsiko da, aurkeztutako dokumentazioa erakundeak eskura duen jatorritzko dokumentuen irudi zehatza dela eta eskatzen duenean GOFEn esku jarri ahalko dela adierazteko.*

Seigarrena.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean izango ditu ondoreak.

Zazpigarrena.- Hitzarmen hau xedea osatzen duten jarduketak betetzean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean azkenduko da, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.1. artikulua xedatutakoaren arabera.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, hitzarmena suntsiarazteko honako arrazoi hauek daude:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.*
- b) Sinatzaile guztien aho bateko erabakia.*
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.*
- d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala.*
- e) Aurrekoekin zerikusirik ez duen edozein arrazoi, baldin eta hitzarmenak edo bestelako legeek aurreikusten badute.*



Hitzarmena bete eta azkenduz gero, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52. artikuluan xedatutako ondoreak izango ditu.

Zortzigarrena.- *Bi alderdiek aitortzen dute Datu pertsonalak tratatu eta datuak aske zirkulatzeari dagokionez pertsona fisikoak babesten dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (datuak babesteko erregelamendu orokorra) indargabetzen duen 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren xedapenak eta datuak babestearen arloan aplikazioko gainerako araudia ezagutzen dituztela eta hitzarmen honetan nahasita dauden pertsona fisikoetatik eskuratzen dituzten datuei dagokienez horietan xedatutakoa betetzeko konpromisoa hartzen dutela.*

Bederatzigarrena.- *Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede denaren gainean egindako publizitate guztian Arabako Foru Aldundiaren lankidetzari idatziz jasoa uzteko. Komunikazio-, publizitate- eta propaganda-ekintza guztiek hitzarmen honen xedearekin lotura badute, aurretiaz Arabako Foru Aldundiaren baimena eskuratu beharko dute, eta korporazioaren irudiari dagokionez, Aldundiak berak emandako adierazpenak beteko dituzte. Era berean, edozein egintza publiko edo pribatu, aurkezpen, sari-emate, klausura eta antzekoren bat antolatuz gero, egunak, ordutegiak, ekitaldiaren garapena, gonbidatuak, etab. deialdia egin baino lehenago adostuko dira, eta Aldundiak onetsi beharko ditu. Nolanahi ere, ekitaldi hauetan presidentetza eta presentzia aktiboa beren-beregi hitzarmenaren sinatzaileei gordeko zaie, eta AFAko Protokoloa eta Harreman Publikoetako zerbitzuak arautuko du.*

Hamargarrena.- *Hitzarmen hau aplikazioko administrazio-zuzenbideko arauen, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren eta orokorrean aplikaziokoak diren gainerako xedapenen mende dago.*

Azaldutako guztiarekin ados daudela frogatzeko, alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

*Emilio Sola Ballojera
Gizarte Politiken foru-diputatua eta Gizarte
Ongizaterako Foru Erakunde
Administrazio Kontseiluko lehendakaria*

*Gentza Alamillo Udaeta
Aiarako Udaleko alkate-udalburua*

*Diputado Foral de Políticas Sociales y
Presidente del consejo de Administración del
Instituto Foral de Bienestar Social”.*

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena gauzatu dadin beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren kopia Arabako Foru Aldundiari bidaltzea, alkate-udalburuak behar bezala sinatu ondoren, erakundeak ezagutu dezan eta ondoreak izan ditzan.



3.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoari buruzko lehenengo aldaketa.

Ondoren, Udalbatzari berri eman zaio, Tokiko Erakundeen Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, alkateak edo udalburuak aztergaien zerrendan aurretiaz informazio-batzordearen irizpenik ez duten gaiak sartu ahalko dituela, behar bezala arrazoituta dauden presazko arrazoiak direla bide. Dena den, halako ustezkoetan, ezingo da gaiak buruz ezer erabaki osoko bilkurak aztergaien zerrendan sartzea baietsi gabe.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da. Iruzkirik egin gabe bozkatu da, eta aho batez erabaki da puntu hau bilkurako aztergaien zerrendan sar dadin baiestea.

Gai honi dagokionez, erabaki-proposamenaren berri eman da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza esateko erabakian bi aldaketak batera daudenez, bere talde politikoa abstenitu egingo dela.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 5 (EAJ)

ABSTENTZIOAK: 3 (EH BILDU)

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2022 ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2022ko apirilaren 25eko osoko bilkuran onetsi zen 2022rako Udaleko aurrekontu orokorraren eranskin gisa.

KONTUAN HARTU DA.- Plan Estrategikoaren I. eranskinean Kultura eta Kirol Arloaren dirulaguntza-jarduera bereizten da.

KONTUAN HARTU DA.- Aiarako Udalak udalerriko ondare historiko artistikoa babestu eta birgaitzeko interes publikoa du.

Udalbatza Osoak, gehiengo soilez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Aldatzea Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina (Kultura eta Kirol Arloaren dirulaguntza-jarduera) eta “Valle de Llanteno” Kultur Elkarte Artistikoari dirulaguntza **5.000 eurokoa** bihurtzea, Aiara udalerrian artea eta kultura pizte aldera ekimenak eta jarduerak bultzatu eta sustatzeko.

BIGARRENA.- Aldatzea Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren V. eranskina (Administrazio Batzarrak), eranskinean honako erakunde eta/edo pertsona hauei zuzeneko dirulaguntza emateko:

- Kreditu gehigarria duelako aurrekontu-aldaketari jarraikiz, Erbiko Administrazio Batzarraren alde 2022rako udal-aurrekontuko 943.734.002 aurrekontu-

I.F.K. C.I.F. P0101100F



aplikazioaren kargura 3.000 euroko zuzeneko dirulaguntza, Erbi eta Lujo artean doan bidea konpontzeko bigarren faseko obra egite aldera”.

4.- Onestea, bidezkoa bada, 2022 urterako Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno Arte Eskolaren arteko lankidetzaz hitzarmena zuzeneko dirulaguntza emateko.

Udalbatzari puntu honen gainean 2022ko ekainaren 14an Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak emandako aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 8 kidek) aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Udal- interesa dago Valle de Llanteno Arte Eskola Elkarteak urtero Aiara udalerrian egiten duen kultura-zereginarekin lankidetzan jardun eta hori sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno Arte Eskola Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena marrazketa, pintura, zeramika eta zur-lanketaren diziplinak garatzeko gastuen zati bat diruz laguntzeko. Zehazki, irakasleak kontratatuzko eta ikastaroak irakasteko materialen gastuei erantzun zaie.

IKUSI DA.- Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2022ko ekainaren 14an emandako aldeko irizpena.

KONTUAN HARTU DA.- 2022rako udal-aurrekontuan hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko kreditu nahikoa eta egokia dagoela.

Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (Udalbatza osatzen duten 11tik 10 zinegotzi), **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno Arte Eskola Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, marrazketa, pintura, zeramika eta zur-lanketaren diziplinak garatzeko gastuen zati bat diruz laguntzeko. Zehazki, irakasleak kontratatuzko eta ikastaroak irakasteko materialen gastuei erantzun zaie. Hitzez hitz hala dio:

“AIARAKO UDALAREN ETA “VALLE DE LLANTENO” KULTUR ELKARTE ARTISTIKOAREN ARTEKO LANKIDETZAZ HITZARMENA, 2022. URTEA



Arespalditzan, 2022ko aren (e)(a)n.

BILDU DIRA

Alde batetik, Aiarako Udaleko alkate-udalburu den Gentza ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko idazkari den Naiara Lazpita Marcos andrearen laguntzaz.

Bestetik, jaun/andrea, adin nagusikoa, NANaren zenbakia duena, “Valle de Llanteno” Kultura eta Arte Elkarteko burua.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrenak, VALLE DE LLANTENO Kultur eta Arte Elkartean izenean (IFK: G-01103795) eta haren ordezkari gisa. Nortasuna eta ordezkartza elkarteak berak egindako ziurtagiriaren bitartez egiaztatuta daude. Hala, aktaren kopia bat aurkeztu da, zeinetan “VALLE DE LLANTENO” Kultur eta Arte Elkarteko burua hautatu eta izendatzen den.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **lankidetzaz-hitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

ADIERAZTEN DUTE

I.- Aiarako Udalak kultura eta artea sustatzeko eta horiek eremu guztietan erabiltzeko interes publikoa du, beraz, besteak beste, honako ekimen hauen bidez jardungo du:

- Aisian, kultura-eskaintzan, herri-jaietan eta beste feria batzuetan erabilera-aukerak sortzea.
- Kultura eta artea sustatzeko kanpainak eta jarduerak antolatzea.
- Jarduera guztietan generoaren ikuspegia txertatzea.
- Egokitzat jotzen dituen bestelako ekimenak.

II.- Aiarako Udalak udalerrian kultura eta artea sustatzea erabaki duenez, beste ekimen batzuen artean hitzarmen honen bitartez jardungo du bultzatzen. Hitzarmen honen bidez, pintura, marrazketa, zur-lanketa eta zeramikako arte-diziplinak garatzeko “VALLE DE LLANTENO” Kultur eta Arte Elkarteari emango zaion urteko dirulaguntza arautzen da. Irakasteko irakasleen eta materialen kostua lagunduko da diruz.



III.- “VALLE DE LLANTENO KULTUR ETA ARTE ELKARTEA” izenekoa elkarte irekia da, bai Aiarako herritarrentzat, bai udalerriko elkarteentzat, eta bere helburua da kultura eta artea sustatzea eta gizartean erabiltzea.

IV.- Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta lankidetzeta-hitzarmenak sinatzeko tokiko erakundeek duten eskumenari jarraikiz, bi alderdiek lankidetzeta-hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Aiarako Udalaren aldetik hitzarmen honen xedea da artea eta kultura sustatzeko zenbait ekimen eta jarduera bultzatzea eta, horretarako, generoaren ikuspegia baliatuta, “VALLE DE LLANTENO” Kultur eta Arte Elkartearen laguntza eta koordinazioa izatea.

Xede horrez, “VALLE DE LLANTENO” Kultur eta Arte Elkarteak Aiara udalerrian ezinbestez honako jarduketa hauetan elkarlanean jardungo du:

- San Prudentzioko jaietako azalen lehiaketan epaimahaia izango da.
- Epaimahai-zereginetan arituko da Aiara udalerriko zenbait arte-lehiaketetan.
- Marrazketa, pintura, zeramika eta zur-lanketako kultur ikastaroak antolatu eta garatuko ditu.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak garatu behar duen sustapen-jardueraren edukia da marrazketaren, pinturaren, zeramikaren eta zur-lanketaren diziplinetan generoaren ikuspegiarekin “VALLE DE LLANTENO” Kultur eta Arte Elkartearen urteko jarduerak dakartzan gastuetarako dirulaguntza ematea. Generoaren ikuspegiarako Udalak trebakuntza eta laguntza teknikoa emango du.

HIRUGARRENA.- Jarduera sustatzeko administrazio honen dirulaguntza marrazketa, pintura, zeramika eta zur-lanketaren diziplinetan programa garatzeko gastuetarako izango da. Zehatz-mehatz esanda, lehen adierazitako diziplinak irakaste-aldera, irakasleak kontratatzekeo gastuei eta materialen gastuei erantzungo zaie.

Dirulaguntza kalkulatzeari begira, aintzat hartuko dira diziplinetarako langileak kontratatzekeo eta materialak eskuratzeko gastuak, betiere behar bezala justifikatuta badaude, eta kenduko zaizkie diziplina bakoitzean elkarteak ikasleen edo erabiltzaileen kuotengatik lortzen dituen diru-sarrerak eta kontzeptu horietarako bestelako dirulaguntzak. Elkarteak diziplina horietan ezingo du finantzazioaren gaineko zenbatekorik eskuratu.

Hitzarmen honek xedatzen duen udal-dirulaguntza, gehienez ere, urtean BOST MILA (5.000,00) EUROKOA izango da.

LAUGARRENA.- Dirulaguntza emateko diziplina bakoitzean antolatutako ikastaroetan gutxienez ZORTZI pertsonen parte hartu beharko dute horiek irauten duten bitartean (egiaztatzekeo zinpeko adierazpena aurkeztuko da, partaide bakoitzak sinatu ostean).



Ikastaroan parte hartzen dutenen artean Aiarako Udalean erroldatuta ez daudenak badaude, dirulaguntzak udalerrian erroldatutako pertsonen zati proportzionala izango du.

Gainera, ezinbestekoa da elkarteak jarduerak finantzatzeko beste erakunde batzuei (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzza, etab.) dirulaguntza guztiak eskatzea.

BOSGARRENA.- Urteko udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitortpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira. Halaber, diruz lagundutako diziplina bakoitzean izena emategatik eskuratutako kuotak aitortuko dira.
- b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzeko ziurtagiria. Hala eta guztiz ere, organo izapidegileak elkarreragingarritasunaren bitartez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren kontsultak eta egiaztatpenak egingo ditu eskatzaileek edo onuradunek kontra egiten ez badute. Kontra eginez gero, **I. ERANSKINA BETE BEHARKO DU**, ziurtagiriak aurkezteaz gain.
- c) Marrazketa, pintura, zeramika eta zur-lanketako ikastaroak irakastearen jarduerari buruzko honako dokumentazio hau:
 - Diruz lagundu den ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea (diru-sarreretan diziplina hauetarako erabiltzaileen kuotak eta beste erakunde publikoen eta zuzenbide pribatuko balizko dirulaguntzak sartuko dira).
Diruz lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko adierazpena). Memorian hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egingo da, eta partaidetzaren datuak sexuaren arabera banatuta emango dira.
 - Diruz lagundutako diziplinaren irakastearen gaineko gastu guztien frogagiriak:
 - Irakasleak kontratatzeako gastuak: Nominen, Gizarte Segurantzaren kopia, ordainagiriekin batera, diziplinetarako kontratatu diren langileen TC-1 eta TC-2ren kopia, ordainsariak ordaindu izanaren frogagiria.
 - Materialaren gastuak: Materialaren gastu guztien justifikazio-fakturak, diziplinaren arabera behar bezala banatuta. Faturek egiteko eskatzen diren legezko baldintza guztiak izango dituzte. Transferentziaren bidez eginez gero ordainagiria erantsiko da edo dirutan ordaintzen bada, fakturan bertan azalduko da.
 - Dirulaguntza luzatzea erabaki delako Udalak eskatuz gero, hurrengo urterako jardueretan eta funtzionamenduan urteko gastuaren aurreikuspena eta foruko dirulaguntzaren aurreikuspena, bidezkoa bada, urte horretarako beste balizko diru-sarrera batzuekin batera. Helburua da hurrengo urteko dirulaguntza kalkulatzeko.



- Hitzarmenaren xede den diziplina bakoitzean izena eman duten pertsonen partaidetzari buruzko zerrenda. Izena eta bi abizenak, NANA eta partaidetzaren sinadurak azalduko dira, bai eta pertsona horiekin harremanetan jartzeko telefono-zenbakia ere.

Lehenengo hizpaketako baldintzak betetzen ez badira, ez da dirulaguntza emango, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

Urtarriletik maiatzera edo urritik abendura bitartean diziplina bakoitzean erroldatutako gutxieneko kopuruaren eskakizuna betetzen ez bada, dirulaguntza gutxituko da. Bete ez den hilabete horietan betetzen ez den diziplinako gastuen **zati proportzionala** (irakasleak eta materiala) kenduko zaio.

Hitzarmen honen bosgarren hizpaketan eskatzen den justifikazioa **2023ko urtarrilaren 31rako** aurkeztu ez bada, ez da dirulaguntza emango, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

Kultur eta kirol taldeen dirulaguntzak emateko ordenantza eta oinarri arauemaileen arabera, dirulaguntza hau bateragarria izango da Udalak urtero ematen dituen laguntzekin beste diziplina artistiko eta/edo jarduera batzuetako funtzionamendu-gastuetarako eskatzen badira bakarrik, betiere hitzarmen honen bitartez diruz laguntzen direnez kanpo.

SEIGARRENA.- Dirulaguntzaren xede diren jardueren egikaritze-epeak diruz lagundutako urtearen denbora-mugak beteko ditu, hain zuzen ere, 2022. urtea.

ZAZPIGARRENA.- Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau burutu eta garatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketarako. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: info@aiarakoudala.eus; IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak eskubidea du bere datuetara sartzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta tratamendua mugatu edo kontra egiteko ere. Xede horrez, idatzizko jakinarazpena bidaliko dio Udalbatzako zuzendaritzari, eta nortasuna ziurtatzeko dokumentua erantsiko dio. Bestela, Udalbatzaren egoitza elektronikoa xede horrez eskura duen izapide elektronikoa hasi ahalko du. Datuak interesdunak eta/edo bere ordezkariak eman ditu edo administrazio publikoek helarazi dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero, honako webgune honetan kontsulta daiteke: www.aiarakoudala.eus; edo telefonoz jar daiteke harremanetan: 945 39 90 13.

ZORTZIGARRENA.- Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak hizpatutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 hitzarmena sinatzen denean ordainduko du. Gainerako % 20, hitzarmen honen BOSGARREN klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztutakoan ordainduko da.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du egokitutako jotzen duen informazioa.



BEDERATZIGARRENA.- “VALLE DE LLANTENO” Kultur eta Arte Elkartek publizitate guztian Aiarako Udalaren laguntza eta babesletza adieraziko du, eta hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiliko ditu.

HAMARGARRENA.- “VALLE DE LLANTENO” Kultur eta Arte Elkartek hitzarmen honetan onetsi dituen eskakizunak betetzen ez baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizunen eta zehapenen araubidea aplikaziokoa izango da.

Azaldutako guztiarekin ados daudela frogatzeko, alderdiek zuzenketarik edo urradurarik gabe lankidetzaz hitzarmen honen hiru ale sinatzen dituzte dokumentua osatzen duten 5 foliotan. Hala, goiburuan ageri diren egunean eta tokian betetzeko konpromisoa hartzen dute.

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta

Stua.: Naiara Lazpita Marcos

VALLE LLANTENO ELKARTE ARTISTIKOKO BURUA

Stua.: -jn./and.

Alkateak eta idazkari kontu-hartzaileak dokumentua elektronikoki sinatu dute.

I. ERANSKINA

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriak. EGIAZTA DAITEZKEEN DATUAK. KONTRA EGITEA.

Udal honek datu eskuragarrien bitartekaritza-sistemen bitartez kontsulta eta egiaztapen egokiak egingo ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren gainean, sinatzen duenak aurka egiten ez badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriarekin batera.

Egiaztatzearen aurka bazaude, adierazi X erabiliz:

- Ez dut nahi Udalak Ogasunarekiko (AFA) ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren gainean kontsulta egitea.
- Ez dut nahi Udalak Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren gainean kontsulta egitea.



Aurka egiteko justifikazioa

Aurka eginez gero, arrazoiak eman behar dituzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua)

Data: _____

Elkartea: _____

Ordez kariaren izena: _____

Stua.: _____

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoko zeregina betetzeko eta Aiarako Udalari berari emandako aginte publikoak erabiltzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/976 EB Erregelamenduaren 6.1 e) artikulua eta gainerako aplikazioko legediak aurreikusitako baldintzetan”.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau Valle de Llanteno Arte Eskola Elkarteari jakinaraztea, eta bi kopia eranstea ale bat behar bezala sinatuta bidaltzeko.

5.- Onestea, bidezkoa bada, 2022 urterako Aiarako Udalaren eta Amigos de Etxaurren – Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkartearen arteko lankidetz hitzarmena zuzeneko dirulaguntza emateko.

Udalbatzari puntu honen gainean 2022ko ekainaren 14an Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeak emandako aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 8 kidek) aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak udalerrian antolatzen diren kultur eta jai adierazpenak sustatu eta babestu nahi ditu.



IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena irailean Etxaurren baselizaren inguruan antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzeko.

IKUSI DA.- Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2022ko ekainaren 14an emandako aldeko irizpena.

KONTUAN HARTU DA.- 2022rako udal-aurrekontuan hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko kreditu nahikoa eta egokia dagoela.

Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (Udalbatza osatzen duten 11tik 8 zinegotzi), **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea 2022 urterako Aiarako Udalaren eta Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena urtero irailean Etxaurren baselizaren inguruan antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzeko. Hitzez hitz honela dio:

**“AIARAKO UDALAREN ETA AMIGOS DE ETXAURREN-ETXAURRENEKO
LAGUNAK KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA,
2022 URTEA**

Arespalditzan, 2022ko aren (e)(a)n.

BILDU DIRA

Alde batetik, Aiarako Udaleko alkate-udalburu den GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko idazkari den Naiara Lazpita Marcos andrearen laguntzaz, egintza egiaztatzeko.

Bestetik, José Ignacio Mendia Ibarrola jauna, adin nagusikoa, 14.853.994-L NANaren titularra, Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkarteko burua.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkarietan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrenak, Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkartearen izenean (IFK: G-01525252) eta haren ordezkari gisa.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **lankidetzeta-hitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako



ADIERAZTEN DUTE

I. Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkartea irabazi-asmorik gabeko elkartea da eta bere helburu nagusia da Menoio gunean “Etxaurren” izeneko tokia udalerriko eta inguruneke herritarren topagune gisa indartzea. Horretarako, irailean Etxaurren baselizaren ingurunean herri-jai bat mantendu eta sendotzen dute.

II.- Aiarako Udalak udalerriko gune eta baselizetan antolatzen diren kultur eta jai adierazpenak babestea erabaki du, betiere generoaren ikuspegia sartuta.

III.- Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta lankidetzahitzarmenak sinatzeko tokiko erakundeek duten eskumenari jarraikiz, bi alderdiek lankidetzahitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Aiarako Udalak hitzarmen honekin lankidetzan jardun nahi du irailean Etxaurren baselizaren inguruan generoaren ikuspegiarekin antolatzen den jaia sustatu eta sendotze aldera.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak garatu behar duen sustapen-jardueraren edukia da aurreko atalean generoaren ikuspegiarekin deskribatu den jardueraren gastuetarako Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkarteari dirulaguntza ematea. Generoaren ikuspegiarako Udalak trebakuntza eta laguntza teknikoa emango du.

HIRUGARRENA.- Jarduera sustatzeko administrazio honek emango duen dirulaguntzarekin goian deskribatutako jarduera garatzean sortutako gastuak ordainduko dira. Dirulaguntza jarduera garatu ostean benetan justifikatzen diren gastuen arabera kalkulatu da, eta Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkarteak kontzeptu horietarako beste dirulaguntza batzuetatik eskuratzen dituen diru-sarrerak kenduko zaizkio. Hitzarmen honek xedatzen duen udal-dirulaguntza, gehienez ere, urtean BOSTEHUN (500) EUROKOA izango da.

LAUGARRENA.- Urteko udal-dirulaguntzaren zenbatekoa (gehienez 500 euro) JUSTIFIKATZEKO honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitortpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira (*inprimakia erantsi da*).
- b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzeko ziurtagiria. Hala eta guztiz ere, organo izapidegileak elkarreragingarritasunaren bitartez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu eskatzaileek edo onuradunek kontra egiten ez badute. Kontra eginez gero, I. ERANSKINA BETE BEHARKO DU, ziurtagiriak aurkezteaz gain.



c) Diruz lagundutako jarduerari dagokion honako dokumentazio hau:

- Jarduerari buruzko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
Jardueraren memoria (noiz egin den, gutxi gorabeherako partaideak, balorazioa eta egindako ekintzen azalpen laburra). Memorian hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egingo da, eta partaidetzaren datuak sexuaren arabera banatuta emango dira.
- Jardueraren gastuak justifikatzen dituzten faktura eta ordainagiriak.

Lehenengo hizpaketako baldintzak betetzen ez badira, ez da dirulaguntza emango, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

Hitzarmen honen bosgarren hizpaketan eskatzen den justifikazioa **2023ko urtarrilaren 31rako** aurkeztu ez bada, ez da dirulaguntza emango, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

Dirulaguntza hau ez da urtero Udalak egiten duen dirulaguntzen gainerako deialdiekin bateragarria.

BOSGARRENA.- Dirulaguntzaren xede diren jardueren egikaritze-epeak diruz lagundutako urtearen denbora-mugak beteko ditu, hain zuzen ere, 2022. urtea.

SEIGARRENA.- Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau burutu eta garatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketarako. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: info@aiarakoudala.eus; IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak eskubidea du bere datuetara sartzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta tratamendua mugatu edo kontra egiteko ere. Xede horrez, idatzizko jakinarazpena bidaliko dio Udalbatzako zuzendaritzari, eta nortasuna ziurtatzeko dokumentua erantsiko dio. Bestela, Udalbatzaren egoitza elektronikoa xede horrez eskura duen izapide elektronikoa hasi ahalko du. Datuak interesdunak eta/edo bere ordezkariak eman ditu edo administrazio publikoek helarazi dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero, honako webgune honetan kontsulta daiteke: www.aiarakoudala.eus; edo telefonoz jar daiteke harremanetan: 945 39 90 13.

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak hizpatutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatutakoan. Lehenengo ordainketa egin baino lehen, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiria aurkeztuko du. Gainerako % 20 hitzarmen honen LAUGARREN klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztutakoan ordainduko da.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du egokitzen jotzen duen informazioa.

ZORTZIGARRENA.- Amigos de Etxaurren-Etxaurrenako Lagunak Kultur Elkartek publizitate guztian Aiarako Udalaren laguntza eta babesletza adieraziko du, eta hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiliko ditu.



BEDERATZIGARRENA.- Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkarateak hitzarmen honetan onetsi dituen eskakizunak betetzen ez baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizunen eta zehapenen araubidea aplikaziokoa izango da.

Azaldutako guztiarekin ados daudela frogatzeko, alderdiek zuzenketarik edo urradurarik gabe lankidetzat-hitzarmen honen hiru ale sinatzen dituzte dokumentua osatzen duten 4 foliotan. Hala, goiburuan ageri diren egunean eta tokian betetzeko konpromisoa hartzen dute.

ALKATE-UDALBURUA

Nire, IDAZKARIAREN, aurrean

Stua.- Gentza Alamillo Udaeta

Stua.- Naiara Lazpita Marcos

ETXAURRENEKO LAGUNAK KULTUR ELKARTEKO BURUA

Stua.- José Ignacio Mendia Ibarrola

Alkateak eta idazkari kontu-hartzaileak dokumentua elektronikoki sinatu dute.

I. ERANSKINA

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriak EGAZTA DAITEZKEEN DATUAK. KONTRA EGITEA.

Udal honek datu eskuragarrien bitartekaritza-sistemen bitartez kontsulta eta egiaztapen egokiak egingo ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren gainean, sinatzen duenak aurka egiten ez badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.

Egiaztatzearen aurka bazaude, adierazi X erabiliz:

- Ez dut nahi Udalak Ogasunarekiko (AFA) ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren gainean kontsulta egitea.
- Ez dut nahi Udalak Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren gainean kontsulta egitea.



Kontra egiteko justifikazioa

Aurka eginez gero, arrazoiak eman behar dituzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua)

Data: _____

Elkartea: _____

Ordez kariaren izena: _____

Stua.: _____

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoko zeregina betetzeko eta Aiarako Udalari berari emandako aginte publikoak erabiltzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/976 EB Erregelamenduaren 6.1 e) artikulua eta gainerako aplikazioko legediak aurreikusitako baldintzetan”.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Kultur Elkarteari jakinaraztea eta hitzarmenaren bi kopia eranstea ale bat behar bezala sinatuta itzultzeko.

6.- Onestea, bidezkoa bada, osoko bilkurak 5/2022 kreditu gehigarria.

Udalbatzari puntu honen gainean 2022ko ekainaren 14an Kontuen Informazio Batzordeak eta Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Araubideko Iraunkorrek emandako aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Hemeretziak eta zortzi minutu direnean Susana Martín Benavides zinegotzi andrea osoko bilkuren aretoan sartu da eta bilkuran parte hartzen hasi da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza 2021eko aurrekontuan uholde-arriskuei buruzko azterketetarako partida dagoeneko azaltzen zela adierazteko. 2022ko aurrekontuan ez da jaso eta akats hori dela eta, beste inbertsio batzuk izendatu ahal izan dira. Partida hori sartuta balego, horiek ezin izango lirateke jaso. Horrez gain, sinesgaitza iruditzen zaio gobernu-taldeko kide guztiei akatsa ahaztea, beste gauza batzuetarako horren zorrotzak direnean.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dakiela Bilduri enbarazu egiten dion gauzak egitea edo nola egiten diren. Bere esanetan, idazkari andreak dagoeneko azaldu zuen batzordean gertatutakoa eta nahi diren interpretazioak egin daitezke. Uholde-arriskuei buruzko azterketetarako partida sartu izan balitz, inbertsioak gerakinaren kargura izendatuko lirateke.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 (EAJ)
ABSTENTZIOAK: 3

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Gastu orokorretarako 2021eko aurrekontuaren likidazioak eman duen diruzaintzaren gerakina erabili behar da 2022ko udal-aurrekontuan honako gastuen partida hauek kreditu gehiago izateko eta 2022rako gastuen aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko, 2023 urtean ordaintzeko ezin baitezakete itxaron.

IKUSI DA.- Organo kontu-hartzaileak eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak Aldatzen duena) jasotakoari jarraituz (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa). Txosten hori Udalbatzari erakutsi zaio kreditu aldaketa honekin batera.

KONTUAN HARTU DA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Hori guztia oinarritzat hartuta, Aiarako Udalbatza Osoari proposatzen zaio honako **ERABAKI** hau hartzeko:

Lehenengoa.- Onestea kreditu gehigarria ondoren zerrendatzen diren aurrekontu-aplikazioetan:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEK OA (€)
151.227.070	HAPO-REN UHOLDE-ARRISKUEI BURUZKO AZTERKETAK	81.100 €
334.481.000	VALLE LLANTENO KULTUR ELKART. ARTISTIKOARI DIRUL.	1.000 €

ZENBATEKO OSOA: 82.100 €



Aurreko zenbatekoa honako baliabide hauek finantzatzeko dute, hortaz, espedientea orekatuta aurkezten da, defizitik izan gabe:

A. Gehitu behar diren diru-sarrerren partidak edo erabiliko den diruzaintza-geldikina:

<u>Diru-sarrerren partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa (€)</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-SOBERAKINA	82.100 €
	GUZTIRA	82.100 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera guztien parekoa da.

Bigarrena.- Erabakia ALHAOn argitaratzea eta espediente hau 15 egun baliiodunez jendaurrean jartzea, interesdunek aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.- Erabaki hau behin betikotzat jotzea erreklamaziorik ez badago. Erreklamazioak egonez gero, erabaki berri bat hartu beharko da onesteko edo ezesteko.

7.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Erbiko Administrazio Batzarraren arteko hitzarmena bidea konpontze aldera zuzeneko dirulaguntza emateko.

Udalbatzari 2022ko ekainaren 14an Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordeak eginiko aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Idazkari andreak hartu du hitza eta hitzarmena onesteko erabaki-proposamenaren aurkako eragozpen-txostena azaldu du. Ez du erabakia eteten, baina Osoko Bilkurak baztertu beharko du hitzarmena onesteko eta hartutako erabakian idatziz jasota geldituko da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza bere taldea kasu guztietan malgua izatearen aldekoa dela adierazteko, eta ondorioz, eskatu zuen eskatzaile bati euskaraz errotuluak jartzeagatik dirulaguntza emateko, nahiz eta epeaz kanpo aurkeztu. Kasu honetan ere malgua izateko eskatu zen, baina ez zen hala gertatu. Horregatik, orain abstenitu egingo dira.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ezin daitezkeela alderatu partikular baten dirulaguntza-eskaera eta obra bat egitearen interes publikoa.

Karmele Población Martínez zinegotzi andrearentzat (EH BILDU) ez zen interes partikularra bakarrik, herritar guztien interesa baizik, kaleetan errotuluak euskaraz egotearekin euskara bultzatzen baita.



Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza komentatzeko aurreko osoko bilkuran gaiari buruz hitz egin zenean, ez zela interes publikoari buruzko ezer aipatu. Lehenengo Bira pasa behar zela adierazi zen eta, gainera, berariaz galdetu zen. Interes orokorrarena gerora iritsi zen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du bi gauzak interes orokorrekoak direla, hau da, bi gune elkartzen dituen bidea konpontzea eta Bira bide horretatik pasatzea, udalerria sustatzen baita.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 (EAJ).
ABSTENTZIOAK: 3 (EH BILDU).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Erbiko Administrazio Batzarraren arteko lankidetzahitzarmena bidea konpontze aldera zuzeneko dirulaguntza emateko.

IKUSI DA.- 1/2022 eragozpen-txostena, idazkari kontu-hartzaileak 2022ko ekainaren 13an emandakoa, hitzarmena eta gastua onesteari dagokionez. Hitzez hitz hala dio:

*“GASTUAK ERAGOZTEKO KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA
AIARAKO UDALA*

ERAGOZPENAREN ZK.: 1/2022

GAIA: Zuzeneko dirulaguntza emateko lankidetzahitzarmena onestea eta Erbitik Lujora doan landa-bidearen egokitze-obra egite aldera Erbi Administrazio Batzarrari dirulaguntza ordaintzeko gastua onestea.

I. ERAGOZPEN-MOTA

- *ETENIK GABEKO ERAGOZPENA*

Obrak gauzatzeko eta ordainsari teknikoen gastuetarako Aiara udalerriko Administrazio Batzarrei dirulaguntzak emateko udal-ordenantza arautzailea ez betetzea.

- *USTEZKOAREN DESKRIBAPENA*

- Aurrekariak

2021eko azaroaren 25ean 688 Alkatetzaren Dekretuaren bidez obrak gauzatzeko eta ordainsari teknikoen gastuetarako Aiara udalerriko Administrazio Batzarrei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi ziren.



Ordenantzak xedatzen duen bezala, onetsitako dirulaguntzak deialdia onesten den urtean egindako obretarako eta ordainsarietarako dira.

Deialdia 138 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen 2021eko abenduaren 3an eta eskaerarako epea argitaratu eta hurrengo egunetik abenduaren 17ra artekoa zen, azkenekoa barne.

Aipatutako epearen barruan Erbiko Administrazio Batzarrak ez zuen eskaerarik aurkeztu dirulaguntza emateko.

2021eko abenduaren 23an (4714 SE) idazki bat aurkeztu zuen. Horren bidez, Administrazio Batzarrek obrak egiteko gastuetarako dirulaguntzari zegokionez, luzapena eskatu zuen Erbitik Lujora doan errepidearen II. faseko obrak egiteko.

Sinatzaileak telefonoz jakinarazi zion dirulaguntzen deialdirako eskerik ez zuela egin eta epea dagoeneko itxita zegoela.

Dirulaguntzak emateko prozeduraren barruan ebazpenak ez zuen Erbiko Administrazio Batzarra sartu, ez emandako dirulaguntzetan, ez eta ezetsitakoetan ere, ez baitzuen eskerik egin.

2022ko martxoaren 17an Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez diruzaintzako gerakinaren kargura gastu orokorretarako kreditua gehitzeko espedientea onetsi zen, eta 3.000 euroko partida izenduna sartu zen, Erbiko Administrazio Batzarrari zuzeneko dirulaguntza emate aldera, Erbitik Lujora bidea egokitu nahi baitzuen eta 2021 urtearen amaieran Udalak onetsi zuen norgehiagokaren prozeduran ezin izan baitzitzaion diruz lagundu.

Idazkari kontu-hartzaile sinatzaile honek ahoz jakinarazi zuen osoko bilkura hartan zuzeneko dirulaguntza emanaz gero, gastuaren eragozpen-txostena izango zuela, administrazio-batzarrei dirulaguntzak emateko udal-araudia ez zelako betetzen.

2022ko ekainaren 9an aztertzeo aurkeztu zen Erbiko Administrazio Batzarraren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena. Helburua zen Erbitik Lujora bidea konpontzeko II. faseko obra egitea.

- Eragotzitako ustezkoa

Erbitik Lujora errepidea konpontzeko II. faseko obrak egite aldera Erbiko Administrazio Batzarraren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena onesteari eragozpen-txosten hau egin zaio. Dirulaguntzaren kontzeptupean Erbiko Administrazio Batzarrari 3.000 euro ordaintzeko konpromisoa hartuko da bidea egokitzeko 202. urtean ordaindu zen obra batengatik. Dirulaguntza hori Udalak urtero obretarako eta ordainsarietarako administrazio-batzarrei dirulaguntza norgehiagokan emateko onesten duen deialdian eskatu beharko litzateke.

• **IZAPIDEAK**

Udaleko kontu-hartzailetzak sinatu duen eragozpen-txosten hau baztertzeo organo eskudunari bidaliko zaio: OSOKO BILKURA, organo horrena baita hitzarmena onesteko eskumena.



Osoko Bilkurak desadostasunari buruzko txostena eskatu ahalko dio Arabako Foru Aldundiko sail egokiari.

Txosten hori ikusi ondoren, eskatuz gero, idazkaritza kontu-hartzaitza honek jakinaraziko du eragozpena kentzea edo ez kentzea bidezkoa den.

Eragozpena kentzen ez bada eta horren kontrako ebazpena ematen bada, eragozpena erabakian idatziz jasota geldituko da.

OHAR GEHIGARRIAK

Egiaztatu da 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa dirulaguntza hori sartzeko ez dela aldatu, beraz, organo eskudunak zuzeneko dirulaguntza onestea erabakitzen badu, Plan Estrategikoa aldatu beharko du.

ERANSKINA

ADMINISTRAZIO BATZARRAK 2021 URTEAN NORGEHIAGOKAREN PROZEDURAN ESKATU BEHAR ZUEN DIRULAGUNTZA ZUZENEAN EMATEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONESTEAREN FISKALIZAZIOA

Eguna: 2022/06/13

Adm. esp.: Zuzeneko dirulaguntza emateko lankidetzaren onestea eta Erbitik Lujora doan landa-bidearen egokitze-obra egite aldera Erbi Administrazio Batzarrari dirulaguntza ordaintzeko gastua onestea. Horren bidez, zuzeneko dirulaguntza emango da.

Aurrekontu-partida: 943.734.002

Erbi eta Lujo elkartzen dituen landa-bidea egokitzeko obrarako zuzeneko dirulaguntzaren gastua. Zenbatekoa: 3.000 €

FISKALIZATU BEHAR DIREN ALDERDIAK

- *Dirulaguntzei buruzko araudia, orokorra eta Udalarena, betetzea.*

***EZ DA BETETZEN** (udal-araudia ez betetzea: obrak gauzatzeko eta ordainsari teknikoen gastuetarako Aiara udalerriko Administrazio Batzarrei dirulaguntzak emateko udal-ordenantza arautzailea).*



OHARRAK:

Ezin daiteke zuzeneko dirulaguntza eman, udal-arau batek obretarako eta ordainsarietarako administrazio batzarrei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen baititu. 2021. urtean deialdia egin zen, baina Erbiko Batzarrak ez zuen eskaerarik aurkeztu.

FISKALIZAZIOAREN EMAITZA

ETENIK GABEKO ERAGOZPENA

KONTU-HARTZAILEA

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

IKUSI DA.- Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2022ko ekainaren 14an emandako aldeko irizpena.

KONTUAN HARTU DA.- 2022rako udal-aurrekontuan hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko kreditu nahikoa eta egokia dagoela.

Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (Udalbatza osatzen duten 11tik 10 zinegotzi), **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Idazkari kontu-hartzaileak 2022ko ekainaren 13an sinatutako etenik gabeko 1/2022 eragozpena baztertzea eta Aiarako Udalaren eta Erbiko Administrazio Batzarraren arteko lankidetzak-hitzarmena onestea bidea konpontze aldera zuzeneko dirulaguntza emateko. Hitzek hitz hala dio:

ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN ETA AIARAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ERBITIK LUJORA BIDEA KONPONTZE ALDERA II. FASEKO OBRARI AURRE EGITEKO

Arespalditzan, 2022ko aren (e)(a)n.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, AIARAKO UDALEKO alkate-udalburu den GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko idazkari den Naiara Lazpita Marcos andrearen laguntzaz, egintza egiaztatzeko.



*Bestetik, **JESUS MARIA LOPEZ MATO** jauna, adin nagusikoa, **ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARREKO** erregidore-presidentea den neurrian.*

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzen, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorriz.

Bigarrenak Erbiko Administrazio Batzarraren izenean eta toki erakunde horren ordezkari gisa, xede horretarako eskuduna baita Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren babesean (2005eko martxoaren 31ko ALHAO, 38. zk.).

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- **ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA** Erbi eta Lujo elkartzen dituen landa-bidearen titularra da Kontzejuaren mugaraino eta bigarren fasean egokitzapen-lanak egingo ditu. Obra horiei esker, Aiara udalerrian, Erbi eta Lujo guneen artean dagoen landa-bidean errodadura-geruza egokituko da.

Bidearen 812 metro lineal egokituko dira, eta proiektatutako zoladura-tratamendua egungo zabalgunean hiru asfalto-geruza zabaltzean datza.

Hiru asfalto-geruza horien lodiera gutxi gorabehera 2 cm-koa da, beraz, oraingo errepidearen sestra 2 cm horiek egingo ditu gora bide guztian zehar.

Jarduketa osatzeko, ezpondetatik sastrakak kenduko dira eta perimetroko arekak garbituko dira, arekak salbatzeko pasabideez gain.

Lehendik dauden fabrika-obrak afektatzea edo aldatzea ez da aurrez ikusten.

BIGARRENA.- **ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK** errepidea Administrazio Batzarraren baliabideekin hobetu du, Arabako Foru Aldundiko obra txikien programan ematen den dirulaguntzaren kargura.

HIRUGARRENA.- **ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA** obra honako finantza-planarekin bat egiten ari da:

ERABERRITZEAREN GUZTIZKO KOSTUA: 34.835,98 euro

Arabako Foru Aldundiak emandako dirulaguntza: 22.730,89 €

Hitzarmen honen bitartez Aiarako Udalaren dirulaguntza: 3.000 €

Erbiko Administrazio Batzarraren funts propioak: 9.105,98 €



LAUGARRENA.- *Inbertsioa 2022ko abenduaren 31rako amaitu beharko da.*

Euskal Herriko Itzulia pasatzen delako gunearen interesa dela eta, Aiarako Udalak bide hori hobetzen lagundu nahi duenez, bi alderdiek lankidetzaz-hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte.

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea

*Hitzarmen honen xedea da **AIARAKO UDALAREN** eta **ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN** artean lankidetzaz formalizatzea Erbitik Lujora bidea konpondu eta egokitzearen obrari dagokion II. fasea finantzatzeko. Lankidetzari esker inbertsioa finantzatuko da. Hala, udal-helburu bat garatuko da, hain zuzen, udalerrriaren irudia sustatzea. Lehen aipatu den esku hartzea dela bide, Euskal Herriko Itzulia pasako da eta udalerrriak nazioarte-mailan proiektzioa lortuko du. Modu horretan sustatzea lortuko da.*

BIGARRENA.-

***AIARAKO UDALAK** sustapen-jarduera hobekuntza-obra guztien zati baterako dirulaguntzaren bitartez gauzatuko du.*

HIRUGARRENA.-

***ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA** obra kontratatu eta gauzatzeko sustatzaile arduraduna da, eta 2022ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon beharko da. Administrazio Batzarrak hitzarmen hau sinatzearekin aitortzen du obra adjudikatzeari Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten dute Espainiako ordenamendu juridikora) bete duela.*

2022rako lankidetzaz-hitzarmen honi buruzko udal-dirulaguntza hiru mila eurokoa (3.000,00 €) da.

LAUGARRENA.-

Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da:

- *Aiarako Udalak Erbitiko Administrazio Batzarrari dirulaguntzaren % 100 ordainduko dio, hitzarmen honen BOSGARREN KLAUSULAN aipatzen den dokumentazioa aurkezten duenean eta funtsen helmuga behar bezala justifikatzen duenean.*



Ordaindu baino lehen Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiria aurkeztu beharko da edo, hori izan ezean, baimena Udalak erakunde egokiei informazioa eska diezaien.

Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du egokitzat jotzen duen informazioa.

BOSGARRENA.-

DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA Aiarako Udalean, gehienez, **2022ko abenduaren 31n** aurkeztuko da.

Justifikazioa aipatutako epean aurkeztu ez bada, dirulaguntza baliogabetuko da, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

Udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) *Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitortpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira.*
- b) *Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzeko ziurtagiria. Hala eta guztiz ere, organo izapidegileak elkarrengarritasunaren bitartez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu eskatzaileek edo onuradunek kontra egiten ez badute. Kontra eginez gero, I. ERANSKINA BETE BEHARKO DU, ziurtagiriak aurkezteaz gain.*
- c) *Jarduera garatzeari buruzko honako dokumentu hauek:*
 - *Egindako jardueraren memoria.*
 - *Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren balantzea, beste erakunde publiko batzuen eta gainerako zuzenbide publikokoen balizko dirulaguntzak barne. Finantzaketa gehiegi izanez gero, emandako dirulaguntza dagokion zenbatekoan gutxituko da.*
 - *Aitortutako gastu guztiak justifikatzen dituzten fakturak, egiteko eskatzen diren legezko baldintza guztiekin. Fakturari dagokion ordainagiria erantsi beharko da.*

SEIGARRENA.- Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau burutu eta garatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketarako. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: info@aiarakoudala.eus; IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak eskubidea du bere datuetara sartzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta tratamendua mugatu edo kontra egiteko ere. Xede horrez, idatzizko jakinarazpena bidaliko dio Udalbatzako zuzendaritzari,



eta nortasuna ziurtatzeko dokumentua erantsiko dio. Bestela, Udalbatzaren egoitza elektronikoan xede horrez eskura duen izapide elektronikoa hasi ahalko du. Datuak interesdunak eta/edo bere ordezkariak eman ditu edo administrazio publikoek helarazi dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero, honako webgune honetan kontsulta daiteke: www.aiarakoudala.eus; edo telefonoz jar daiteke harremanetan: 945 39 90 13.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmenak 2022ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

ZORTZIGARRENA.-

ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko ditu.

BEDERATZIGARRENA. -

ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.

Azaldutako guztiarekin ados daudela frogatzeko, alderdiek zuzenketarik edo urradurarik gabe lankidetzeta-hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte dokumentua osatzen duten folio bakoitzean. Hala, goiburuan ageri diren egunean eta tokian betetzeko konpromisoa hartzen dute.

ALKATE-UDALBURUA

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta

ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARREKO ERREGIDORE-PRESIDENTEA

Stua.: Jesús María López Mato

AIARAKO UDALEKO IDAZKARIA.-

Stua.: Naira Lazpita Marcos

Alkateak eta idazkariak dokumentua elektronikoki sinatu dute.



I. ERANSKINA

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriak EGIAZTA DAITEZKEEN DATUAK. KONTRA EGITEA.

Udal honek datu eskuragarrien bitartekaritza-sistemen bitartez kontsulta eta egiaztapen egokiak egingo ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren ganean, sinatzen duenak aurka egiten ez badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.

Egiaztatzearen aurka bazaude, adierazi X erabiliz:

- Ez dut nahi Udalak Ogasunarekiko (AFA) ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren ganean kontsulta egitea.
- Ez dut nahi Udalak Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren ganean kontsulta egitea.

Kontra egiteko justifikazioa

Aurka eginez gero, arrazoiak eman behar dituzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua)

Eguna: _____

Elkartea: _____

Ordez kariaren izena: _____

Stua.: _____

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoko zeregina betetzeko eta Aiarako Udalari berari emandako aginte publikoak erabiltzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/976 EB Erregelamenduaren 6.1 e) artikulua eta gainerako aplikazioko legediak aurreikusitako baldintzetan”.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea Erbiko Administrazio Batzarrari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko zaizkio jakinarazpenari, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.



8.- Alkatetzaren Dekretuen kontu ematea

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2022/317 eta 2022/413 bitarteko Alkatetza Dekretuak, bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/317.- A.O.S.- Maroñon baserriko estalkia birgaitzeko obrarako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/318.- BR.F.U.- Zuhatzan, etxebizitza kokatzen den lursailean, instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/319.- JA.S.J.- Zuhatzan, etxebizitza kokatzen den lursailean, instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/320.- E.Q.SJ.- Sojoko etxebizitzari erantsitako etxolan fatxada margotu eta teila aldatzeko obra txikiko lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/321.- I.L.O.- Zuhatzako La Llana auzoko 16. zenbakian dagoen Urquijo jauregiaren monumentu-multzoan zerbitzu-etxearen zati bat birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/322.- J.B.Z.- Kexaan eraikuntza eraiste aldera obrak hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/323.- O.M.O.- Llantenon basurdea ehizatze txakurren trebakuntza-jarduera onura publikoko edo gizarte-intereseko deklaratzeko baimena izapidetu dezan AFari egindako eskaera jakinaraztea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/324.- Y.Y.A.- Luliaondon etxebizitza egokitzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/325.- Regsiti Comercializadora R SLU 1-2022 toki jabari publikoaren aprobeixamenduari buruzko tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/326.- Alday fundazioa. EALZa kudeakatzeko gastuak ordaintzea, 2022ko apirila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/327.- M.I.E.B.- Arespalditzako Atxa jauregian estalkia birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea eta obra hasteko baimenerako dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/328 - Ekain Abokatuak SA – Aiarako Udalari aholkularitza juridikoa eta defentsa judiziala luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/329.- MP.U.I.- Zuhatzako etxebizitzan forjatua eta estalkia birgaitzeko obra-lizentzia ematea eta obra hasteko baimena emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/330.- MT.V.U.- Arespalditzan etxebizitzako estalkia eraberritzeko obren udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/331.- MP.U.I.- Zuhatzako etxebizitzan forjatua eta estalkia birgaitzeko obrarako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/332.- F/2022/4 fakturen kontabilitate-zerrenda onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/333.- Onyx Ingenieria-Goen SLU.- Udalerrian jarduketa energetikoaren inbentarioa, auditoretza, kalifikazio energetikoa eta planaren definizioa egiteko laguntza teknikoaren zerbitzu-kontratu txikia adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/334.- Mendiko Ingeniarrien Elkargoak jarri duen berraztertze-errekurtsoa baiestea eta zenbait sektoretan uholde-arriskuen azterketak egiteko zerbitzuaren lizitazio-prozedurari uko egitea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/335.- J.R.B.- Euskara ikasi eta hobetzeko laguntzen eskaera zuzentzeko dokumentazioaren errekerimendua egitea, 2021 urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/336.- L.C.V.- Galtzan izandako kalteengatik kalte-ordaina ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/337.- JM.G.L.- Luiaondon etxebizitzaren estalkian instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/338.- N.L.M.- Abuztuaren 1etik 31ra haurrak zaintzeko eszedentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/339.- Elkarkidetza Pentsioak, 2022ko maiatzeko faktura-likidazioa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/340.- JM.L.I.- Olabezarren etxebizitzako estalkia ordeztzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/341.- Zuia Ingeniería SL.- Bere jabetzako etxebizitzan instalazio fotovoltaikoaren obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/342.- I.Z.E.- Luiaondoko etxebizitzan leihoak aldatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/343.- P.B.S.- Olabezarren etxebizitzako leihoetan xafla-akaberak jartzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/344.- JD.V.O.- Arespalditzan etxebizitzako hormak eta sabaiak konpontzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/345.- A.M.G.H.- Llantenoko eraikinean birgaitze-obra amaitzeko epearen luzapena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/346.- R.B.L.- Luiaondoko etxebizitzan zoladura konpondu eta baldosa jartzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/347.-JA.G.U.- Beotegin partzela banatzeari buruzko dokumentu publikoa aurkezteko epearen luzapena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/348.- Aiarako Kuadrilla. Gastu orokorrengatik eta bestelakoengatik ekarpen ekonomikoa, 2022ko 2. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/349.- Aiarako Kuadrilla. Hondakinak kudeatzeagatik ekarpen ekonomikoa, 2022ko 2. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/350.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.- Luiaondoko La Torre kalean eta Barrena kalean autobus geltokietako markesinak instalatzeko Udalaren obra-lizentzia emate aldera hondakinak kudeatzeari buruzko fidantza eskatzea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/351.- ALDAY ONGINTZAZKO FUNDAZIOA.- Arespalditzako hirugarren adinekoentzako egoitzako eraikinen artean metalezko egitura instalatzeko obra legezatzate aldera dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/352.- AM.G.H.- Llantenen etxebizitzako beheko solairura iristeko atea handitzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/353.- FJ.I.G.- Aiarako biztanleen udal-erroldan egoitza aldatzeko eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/354.- Aianox SA.- Murgan administrazio-bulegoen eraikina egikaritzeko obretarako azken obra-lizentzia ematea eta Aiarako 660 katastro-partzelaren 13 eraikina lehenengoz erabiltzeko lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/355.- Aianox SA.- Murgan bigarren industria-nabearen altuera handitzeko azken obra-lizentzia ematea eta solairua handitzeko obrak legezatzatea; partzelako 1 eta 9 eraikinetan obrak lehenengoz okupatzeko lizentzia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/356.- Aianox SA.- Aiarako 4 poligonoko 752 katastro-partzelari dagokion 2 eraikinean solairua handitzeko obrak legezatzeari buruzko azken obra-lizentzia eta obrak lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/357.- Aianox SA.- Murgan txatarra biltegia egikaritzeko obretarako Udalaren azken obra-lizentzia ematea eta solairuak elkartzeko obrak legezatzatea; Catas partzelaren 11 eraikina lehenengoz erabiltzeko lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/358.-E.C.G.- Arespalditzan farmaziaren eta ortopediaren jarduerari buruzko aurretiazko komunikazioaren jakinaren gainean gelditzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/359.- Alkateak kreditua gaitzeko 4/2022 zenbakiko espedientea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/360.- Alkateak kreditua gehitzeko 4/2022 zenbakiko espedientea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/361.- URRUELA SC.- Arespalditzan gaztandegiaren industria-instalazioaren obrarako hondakinak kudeatzeari buruzko fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/362.- M.G.I.- Maroñon baratze-landareen eta landare apaingarrien haztegi eta biltegiaren jardueraren aurretiazko komunikazioaren jakinaren gainean ez gelditzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/363.- Murgan industria-planta handitzeko obrak legezatzate aldera azken-obra lizentzia emateari buruzko 2022/356 Dekretuan EIOZren akatsa zuzentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/364.- Aianox SA.- Murgan bigarren industria-nabea handitzeko azken-obra lizentzia emateari buruzko 2022/355 Dekretuan EIOZren akatsa zuzentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/365.- URRUELA SC.- Arespalditzan gaztandegiaren jarduerari buruzko aurretiazko komunikazioaren jakinaren gainean gelditzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/366.- Aianox SA.- Murgan txatarra-biltegia egiteko azken-obra lizentzia emateari buruzko 2022/357 Dekretuan EIOZren akatsa zuzentzea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/367.- M.G.I.- Maroñon baratze-landareen eta landare apaingarrien haztegi eta biltegirako obra txikiaren lizentzia izapidetzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/368.- Aianox SA.- Murgan bulegoen eraikina egiteko azken-obra lizentzia emateari buruzko 2022/354 Dekretuan EIOZren akatsa zuzentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/369.- Unai Arrieta Aizpurua. Aiara Lagunkoia adinekoen zahartze aktiboari buruzko diagnostikoa egiteko zerbitzu-kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/370.- G.A.U.- Gentza Alamillo Udaetari obra-lizentzia emateko eskumenak lehen alkateordeari eskuordetzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/371.- E.R.E.- Luiaondoko etxebizitzan sukaldea eta bi bainugela berritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/372.- G.A.U.- Luiaondoko etxebizitzaren lehenengo solairuan instalazio elektrikoa aldatu eta barneko arotzeria ordeztuko obrarako Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/373.- Aiarako HAPOaren zenbait sektoretan uholde-arriskuaren azterketa egiteko kontratazio-espeditentea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/374.- I.V.U.- Arespalditzako etxebizitzan bainugela eta terraza berritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/375.- MA.A.G.- Luiaondoko etxebizitzan bainugela berritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/376.- Alkatearen eta langile funtzionarioen nominen ordainsari likidua onestea, 2022ko maiatza.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/377.- J.G.M.- Luiaondoko San Lorenzo kalean etxebizitzaren eraikuntza-obran jabari publikoko eremuaren eta finken normalizazioa onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/378.- Izoriako Administrazio Batzarra.- Izorian Aspukurako bidean azpiegiturak birgaitzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/379.- Kontratututako langileen 2022ko maiatzeko nominen ordainketa onestea, ESEP 2021/22.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/380.- Udaleko alderdi politikoentzako ekarpen ekonomikoa, 2022ko maiatza.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/381.- I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES SAU.- Artziniega eta Menagarai bitartean dauden CTO1 eta CTO3 lineen artean aireko-zorupeko loturarako obra-lizentzia emateko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/382.- J.P.A.- AFAko Ondare Historiko-arkitektonikoaren Zerbitzuaren txostena helaraztea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/383.- BELAKO LANAK SLU.- Errepide nagusietarako lotuneak eta bideak mekanikoki garbitzeko zerbitzuaren kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/384.- I.A.V.- Salmantonen bi ostatu-burbuila instalatzeko obrak hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/385.- Luiaondoko La Torre kalean eta Barrena kalean markesinak instalatzeko obra-lizentzia ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/386.- TALDESPORT SERVICIOS DEPORTIVOS SL.-Udan Aiarako udal-igerilekuak eta beren instalazioak kudeatu eta mantentzeko zerbitzuaren kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/387.- MA.R.L. Bere jabetzako zenbait partzelatan landa-eremuko OHZ salbuestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/388.-J.V.M. Bere jabetzako zenbait partzelatan landa-eremuko OHZ salbuestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/389.- Udalbatzako kideentzako ekarpen ekonomikoa onestea, 2022ko maiatza.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/390.- F.O.V. Ibilgailuari behin betiko baja emateagatik 2022ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/391.- Aiaran perretxikoari buruzko liburu bat editatzeko E.A.M.ri lankidetzeta-hitzarmenaren bidez emandako zuzeneko dirulaguntzaren justifikazio-dokumentuak eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/392.-ASFALTADOS Y CONSTRUCCIONES MORGA SL.- Barrena kalean aparkalekua, mugikortasuna eta aisiarako eremua hobetzeko obraren berme-abalaren itzulera ezestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/393.-Ibaizabal Gaztetxea Gazteen Elkarte.- 2021. urtean kultura-, kirol- eta gizarte-jardueretarako emandako dirulaguntzaren justifikazio-dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/394.- AIARALDEA KOOP. ELKARTEA.- 2021. urtean tokiko komunikabideak euskaraz sustatu eta finantzatzeko hitzarmenaren bidez eman den zuzeneko dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/395.-Valle de Llanteno Kultur Elkarte Artistikoa.- 2021. urterako kultura, kirol eta gizartearen esparruko laguntzen deialdian jaso den dirulaguntzaren zati bat itzultzeko prozedura hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/396.- A.O.S.- Maroñoko La Plazuela auzoko 9. zenbakian baserriko estalkia birgaitzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/397.- Llantenoko Administrazio Batzarra.- Llantenoko eskoletan etxebizitza birgaitzeko obretarako udal-lizentzia ematea eta obrak hasteko baimena emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/398.- Llantenoko Administrazio Batzarra.- Llantenoko eskoletan etxebizitza birgaitzeko obretan hondakinak kudeatzeari buruzko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/399.- M.U.P.- Erroldatze-ziurtagiriaren eskaera zuzentzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/400.- I.A.U.- Izorian etxola eraberritzeko eta nekazaritza-biltegia eraikitzeko obrak lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea eta EIOZ erregularizatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/401.- M.V.E.- Murgan abeltzaintzarako pabiloia eraikitzeko obran hondakinak kudeatzeari buruzko fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatzea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/402.- F/2022/5 erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/403.-A.P.S.- Llantenen etxebizitza eraikitzeo emandako Udalaren obra-lizentziaren iraungitze-espeditentea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/404.- San Isidro 2022 azokan parte hartu duten abeltzainei dietak eta sariak ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/405.-I.L.I.- Murgako industria-pabiloian okintzako lantegiaren jarduera ez baimentzea eta jarduera-espeditentea izapidetzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/406.- Llantenenoko Administrazio Batzarra.- Llantenenoko eskola zaharretan etxebizitza birgaitzeko obra has dadin baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/407.- L.A.V.- Zuhatzan etxebizitza handitzeko obra has dadin baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/408.-G.L.V.- Arespalditzan etxebizitzako fatxada margotzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/409.- Gizarte Segurantzako D.O.- 2022ko apirileko kotizazioa ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/410.- Zuhatzako Adm. Batzarra.- Zuhatzako Plan Partzialaren Proiektuari buruzko Udal Agiritegiko dokumentazioa kontsultatzeko informazio publikoa eskuratzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/411.- J.M.G.- Zuhatzako etxebizitzan estalkia birgaitzeko obra-lizentzia emate aldera dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/412.- Administrazio orokorreko teknikariaren plaza baten hautaketa-prozedurako aurkeztu diren hautagai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea eta epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/413.- Securama Consultoría de Seguridad en Obras SL- Informazio publikoa eskuratzeko eskatzea.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza 363, 364, 366 eta 368 dekretuei buruz galdetzeko. Horien bidez Aianoxi emandako obra-baimenaren gainean EIOZ zuzendu da.

Idazkari andreak azaldu du akats bat izan zela EIOZ kuantifikatzean eta ondorengo dekretuetan zuzendu zela.

Ondoren, alkate jaunak Udalbatzari berri eman dio, presa dela eta, proposamen bat egiten diola Osoko Bilkurari. 2022ko ekainaren 28a dela eta, Udalbatza Osoak “Sexu eta Genero Aniztasunaren aldeko Egunari buruzko erakunde-adierazpena” aztertzea nahi du, deialdi honekin batera bidali den gaien zerrendan ez azaldu arren, Tokiko Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Gai hau osoko bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko presa datetan oinarritzen da, ezin baita hurrengo osoko bilkurara arte atzeratu. Orduan, ez luke zentzurik izango.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) gaia gaien zerrendan sartzeko presa justifikatu du, lehen azaldu diren arrazoietan funtsatuta.

Udalbatzak, lehenik eta behin, gaia eztabaidatzea bidezkoa den azaldu du. Aho batez onetsi da osoko bilkura honetan eztabaidatzea eta, beraz, honako puntu hau sartu da:

9.- 2022ko ekainaren 28ko Sexu eta Genero Aniztasunaren aldeko Egunari buruzko erakunde-adierazpena

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) komentatu du adierazpena Aiarako Kuadrillak onetsi zuela eta Aiarako Kuadrillako Batzordean proposatu ziren ekintza zehatzak dituela.

Ez da ezer gehiago esan horren inguruan. Gaia bozkatu dute, eta bertan dauden zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2022ko ekainaren 28ko Sexu eta Genero Aniztasunaren aldeko Egunari buruzko erakunde-adierazpena.

Osoko Bilkurak, zinegotzien aho batez (Udalbatza osatzen duten 11tik 9 zinegotzi),
ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Onestea 2022ko ekainaren 28ko Sexu eta Genero Aniztasunaren aldeko Egunari buruzko erakunde-adierazpena. Hitzez hitz hala dio:

PROPUESTA DE DECLARACIÓN CON MOTIVO DEL 28 DE JUNIO DE 2022. DIA POR LA DIVERSIDAD SEXUAL Y DE GÉNERO.

Este 28 de junio, un año más, reivindicamos ante la sociedad vasca los derechos y la convivencia desde la diversidad. Desde que 28 de junio de 1969 ocurriera la revuelta de Stonewall en Nueva York, esta fecha se ha convertido en, cada año, en un día para reivindicar y visibilizar todos los logros alcanzados e, ineludiblemente, debe ser también la fecha en la ponemos de relieve todo aquello que aún nos queda por conseguir.

Tras dos años muy complicados por la pandemia y sus consecuencias en toda la población, el colectivo LGTBI ha sido uno de los más golpeados, incrementándose la brecha de la desigualdad y acrecentándose situaciones de vulnerabilidad en muchos ámbitos, como en las redes sociales, por ejemplo. Un año más, desde el Ayuntamiento de Ayala, alzamos la voz para denunciar las agresiones provocadas por el odio a la diversidad sexual y de género que sigue vigente en muchas regiones del mundo donde predomina el prejuicio generalizado contra el colectivo LGTBI.



Es necesario que continuemos trabajando en la consolidación de la lucha contra las distintas discriminaciones que están aún vigentes en nuestra sociedad, respetando todas las identidades, orientaciones y expresiones de género que muchas veces son invisibilizadas; una responsabilidad de todo el conjunto de la sociedad para luchar contra todas las formas de discriminación y violencia. Es tarea de toda la ciudadanía aunar esfuerzos por conseguir una sociedad inclusiva y diversa, entendiendo la diversidad desde el ámbito que nos ocupa, pero también en su globalidad.

El Ayuntamiento de Ayala aunarà esfuerzos con todo el conjunto de agentes sociales para construir una sociedad más justa, respetuosa e integradora. Seguiremos trabajando por el derecho a la igualdad y a la no discriminación por motivo de orientación sexual y de género con el objetivo de promover la libre vivencia de la diversidad. Tanto hoy, 28 de junio, como el resto de los 364 días del año, seguiremos, al lado de las personas LGTBI y su entorno, luchando contra la LGTBIfobia.

Así, se dará continuidad al trabajo iniciado junto a la Diputación Foral de Álava con el Diagnóstico de las realidades LGTBI en el territorio alavés, participando en la elaboración de la estrategia de intervención en materia de las realidades LGTBI, a través de los talleres de autodefensa y autoestima y de la Exposición sobre la situación del colectivo LGTBIQ+ en el mundo que se realizarán en los municipios de la Cuadrilla.

Hacemos un llamamiento a la población para participar en las acciones que sean convocadas por los movimientos LGTBI y feminista en nuestra comarca dentro de la campaña por la diversidad sexual y de género.

2022KO EKAINAREN 28A DELA ETA ADIERAZPEN PROPOSAMENA. SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN ALDEKO EGUNA.

Ekainaren 28an, aurten ere, eskubideak eta bizikidetzak aldarrikatzen ditugu euskal gizartearen aurrean, aniztasunetik abiatuta. 1969ko ekainaren 28an, Stonewallen matxinada gertatu zenetik New Yorken, data hori egun bihurtu da lortutako lorpen guztiak aldarrikatzeko eta ikusarazteko, eta, ezinbestean, oraindik lortzeko dugun guztia nabarmentzeko izan behar du.

Pandemiaren eraginez azken bi urteak benetan latzak izan dira herritar guztientzat, are gehiago LGTBI kolektiboarentzat, gehien kolpatu dutenetako bat izan baita. Izan ere, desberdintasunaren arrakala areagotu egin da eta kalteberatasun-egoerak eremu askotan indartu dira, sare sozialetan esate baterako. Aurten ere, Aiarako Udalak sexu- eta genero-aniztasunarekiko gorrotoak eragindako erasoak salatzeak ahotza altxatzen du, LGTBI kolektiboaren aurkako aurreiritzi ugari munduko eskualde askotan indarrean jarraitzen du eta.

Beharrezkoa da gure gizartean oraindik indarrean dauden diskriminazioen aurkako borroka sendotzen jarraitzea, askotan ikusezin bihurtzen diren genero-identitate, -orientazio eta -adierazpen guztiak errespetatuak izan daitezen. Gizarte osoaren erantzukizuna da diskriminazio eta indarkeria mota guztien aurka borrokatzen jarraitzea. Herritar guztion zeregina da ahaleginak batzea gizarte inklusibo eta anitza lortzeko, aniztasuna aztertzen ari garen esparrutik ulertuta, baina baita zentsu zabal batean ere.



Aiarako Udalak ahaleginak batuko ditu gizarte-eragile guztiekin, gizarte bidezkoagoa, errespetuzkoagoa eta integratzaileagoa eraikitzeko. Berdintasunerako eskubidearen eta sexu- eta genero orientazioagatiko diskriminaziorik ezaren alde lan egiten jarraituko dugu, aniztasunaren bizipen askea sustatzeko helburuarekin. Aiarako Udalean, gaur zein urteko beste 364 egunetan, LGTBI pertsonen eta haien inguruko ondoan jarraituko dugu, LGTBIfobiaren aurka borrokatzen.

Hala, jarraipena emango diogu Arabako Foru Aldundiarekin batera egindako Diagnostikoari, Arabako LGTBI errealitatearen diagnostikoari, eta zuzenean hartuko dugu parte eskuhartze estrategia gauzatzeko orduan. Horretarako, autodefentsa eta autoestimu tailerrak eta Erakusketa antolatuko dira, LGTBIQ+ kolektiboak munduan duen egoerari buruzkoa. Ekintzak Kuadrillako udalerrietan gauzatu dira.

Herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure eskualdean deitutako ekintzetan parte har dezaten sexu eta genero aniztasunaren aldeko kanpainaren barruan.

10.- Eskaerak eta galderak

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza RENFERi dagokionez atzerapenek jarraitzen dutela azaltzeko. Gainera, beste zenbait arazo adierazi ditu, eta ez dira eremu honetako linean bakarrik gertatzen. Horregatik, eskatu du, Laudioko, Amurrioko eta Urduñako Udalekin batera, arazoak konpondu eta soluzioak emateko modua aurkitzeko, gasolinaren prezioa ikusirik, garraio publikoa ezinbestekoa izango baita.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du duela asko bildu zirela eremuko alkateak ADIFekin eta atzerapenen eta trenak kentzearen ondoriozko kezka azaldu ziotela. Azaldutakoaren arabera, pandemia zela bide, makinistak hautatzeko prozesuak gelditu zituzten eta langile gutxierekin zeuden. Berriz eskatuko dute bilera bat etengabeko arazoak adierazteko eta Luiaondoko geltokia zorupean jartzeko obren egoera ezagutzeko. Zenbatekoa dagoeneko esleituta dago Estatuko aurrekontu orokorretan, EAJ-PNV taldeak zuzenketa egin ondoren.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) komentatu du banda zabalarri buruz bidali den dokumentua ez dela ondo ulertzen, sigla ezezagun asko dituelako. Hortaz, ezin dute behar bezala interpretatu, eta argitzeko eskatzen dute.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du begiratu eta argitzen saiatuko direla.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du Aiarako Kuadrillan arkitektoaren eta aparejadorearen plazak euskara-eskakizunik gabe aterako diren.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du EH BILDUK proposamen bat egin zuela, eta eskatu zuela pertsona horiek erretiratzeko zirenean, langileen zerrendan eskakizuna sartzeko, horrenbestez, Kuadrillaren osoko bilkura hartan proposatu zena ikuskatuko du.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) erantsi du, gerora, beste batzorderen batean beste gauza batzuez hitz egin zela. Plaza horiek hizkuntza-eskakizunarekin izateko aukera eskatuko da.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) komentatu du pertsona guztiak beren lanpostuetan finkatzeaz hitz egin zela eta ondoren jarriko zirela hizkuntza-eskakizunak langileen zerrendan.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du erabaki horrekin urte askotan uko egingo zaiola euskaldunek euskaraz arreta izan eta hizkuntza hori erabiltzeko eskubideari.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) berriz hartu du hitza azaltzeko alkate jauna irratira joan zela euskara sustatzeaz hitz egitera eta Hogeitalau Elkartearekin egindako hitzarmena eta laguntzak baino ez zituela aipatu. Eskatu du euskararen erabilera bultzatzearen gaia serio hartzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du une horretan bi gauza horietaz bakarrik hitz egin behar zela, batetik, errotluetarako dirulaguntzak eta, bestetik, hitzarmena. Ez zen beste ezer aipatu behar.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza euskararen erabilera sustatze aldera Euskara Batzordean egin nahi den edozein proposamen entzuteko prest daudela aipatzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko aisiako euskara, Udalaren ikaskuntza-ikastaroak, antolatzen saiatu zela eta ez zela atera. Ekimen horiek eta beste batzuk aurrera ateratzen saiatuko da.

- Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) hartu du hitza mendian urari eta larreen ordenantzari buruzko informazioa eskatzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du uraren gaiari dagokionez, etengabe lanean ari dela. Unai gauez ere igo da mendiraino. Baina nagusiki arazo bat dago, hain zuzen, Kobatako urtegira jaisten den urak airea hartzen duela, popako bentosek ondo funtzionatzen ez dutelako. Horregatik, batzuk ordeztu dira, eta Edillosera doan adarrean gauza bera gertatzen da, beraz, jatorrizko bentosen ordeztu metalezkoak jartzen ari dira.

Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) komentatu du bero-boladan gehiago kontsumitu dela eta gehiago ponpatu behar izan dela. Asteburuan eskuz atera behar izan da eta orain ere bai, bentosak aldatzen ari direlako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza ordenantzari buruz eransteke lanean ari dela.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza maiatzaren 17ko 2050 zenbakiko sarreraren gainean galdetzeko. Horren bidez, Foru Aldundiak eskatzen du 4 poligonoko 179 partzela doan lagatzeko. Zer den jakin nahi du.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du foru-proiektu bat dagoela Izoria eta Murgako urtegia konektatzeko eta hodia udal-lursail horretatik pasatzen dela.

Idazkari andreak hartu du hitza eta azaldu du jabari publikoko ondasuna denez, ezin daitekeela desjabetu eta herri jabariaren mutazio bat egin behar dela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) 2058 zenbakiko sarrerari buruz galdetu du. Horretan "Aquellos años en Respaldiza, Tierra Ayalesa" izenburupeko 30 liburu erosteko aurrekontua ageri da.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Aiarako pertsona baten argitalpena dela eta ale horiek erosi direla Batzarrei oparitu eta gordetzeko.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) Eusko Jaurlaritzako 2373 sarrerari buruz galdetu du. Leader programaren obrek duten egikaritze-mailaren gainean galdetzen du. Gaia nola dagoen jakin nahi du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du osoko bilkuran onetsitakoaren ildotik Patxita etxea birgaitzeko eta Luiaondoko pista ixteko eskatu zela. Puntuak emateko, zenbait baremo daude, eta horietako bat da proiektuaren egikaritze-maila: idatzita dagoen, obra dagoeneko lizitazioan jarrita dagoen... Egikaritze-mailaren arabera, puntu gehiago edo gutxiago ematen dira. Gainera, proiektu horretan irizpide gehiago daude, hala nola proiektu-mota, landagunekoa dena, etab.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) 2521 zenbakiko sarrerari dagokionez zer eskatzen zuen galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du pertsona hori ez zegoela kirol-jarduerak egiteko covid ziurtagiria aurkeztearekin ados eta Lehendakariaren dekretu batek hala eskatzen zuenez, udal-ikastaro eta -tailerretako erabiltzaile guztiei betetzera behartu zitzaizela. Horregatik, pertsona horrek eskatzen zuen ikastaroko kuota itzultzeko. Erantzun zaio ziurtagiria lege-betebehar bat zela eta Udalak dekretu arautzailea bete baino ez duela egin.

•Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) Urbideko gaiari buruz galdetu du, batzordeetan ez baitzaie gaiaren berri eman. Uste du alkate jaunak gertatzen denaren jakinaren gainean izan beharko lituzkeela. Presidentea eta karguak aukeratu zirenean, Udalak proposamen bat eraman zuen. Orain estatutuez hitz egiten ari da, eta Iratxek komentatutakoagatik jakin izan dute. Berak zirriborroa pasatu zien, eta ez da gehiago jakin. Ez dute informazio gehiago. Halaber, ez dakite Administrazio Batzarrei jakinarazi zaien.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Administrazio Batzarrak Urbideko kideak direla eta, ondorioz, informazioa eskura dutela. Aurreko bilkuran Urbideko Kontzejuaren akta eskatu zeniguten, baina oraindik onetsi gabe dago. Eta horri buruz hitz egin zenetik gertakizun bakarra da lurralde-batzorde bat egin dela estatutuen aldaketa azaltzeko. Gaur egun oraindik ez da estatutuak onesteko beste bilkura baterako deialdirik egin. Horrez gain, uste



du Ingurumeneko diputatuak agerraldi bat izango duela gaiari buruz zerbait azaltzeko.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du Udalak alegaziorik egingo duen. Estatutuei eragiten dien zati bat administrazio-batzarren eta udalen artean TEFFFen banaketa da eta galdetu du Udala TEFFFen zati hori Urbideri emateko prest dagoen.0}

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du gaur egun Udalak ez dakiela estatuak zentzu horretan onetsiko dituen. TEFFFk funtzionamendu-arau bat du, beraz, zalantzan jartzen du zenbatekoaren zati bat udalaz edo administrazio-batzarrez kanpo beste erakunde bati eman dakioken. Udalak gaiari buruz erabakia hartzen duenean informazio-batzorde batean landuko du. Oraingoz Udala zain dago ea diputatuak gaia argitzen duen.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) azaldu du pasa den Batzorde Soziosanitarioan Aiaran lehen mailako arretaren inguruan Osakidetzaren aldaketez hitz egin zela eta zehaztu zen Aiara Batuzekin Udalak Osakidetzari idazki bat bidaliko ziola. Gaiari buruz zerbait egin den galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du zelakoa zen egoera. Aiarako herritar batzuek Artziniegako anbulatoria joan behar zuten; beste batzuek, berriz, Arespalditzara edo Luiaondora. Orain beste profesional bat hasi da Aiaran eta Aiarako herritar guztiek lehen arreta Aiaran dute 08:00etatik 15:00etara, Sojok izan ezik. Kokagunea dela eta, Artziniegara joaten jarraituko dute. Gainera, Amurrioko LAUBrekin harremanetan jarri da. Jakinarazi zaie idazki bat bidaliko zaiela astelehenean batzordean erabakitakoarekin.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du gaur egun Gurutzetara bideratuta dauden pertsonen kasuan, bideratze hori oraingo profesionaletarako edo betirako izango den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du betirako izateko eskatuko dela, baina ez dakiela Osakidetzak zer erabakiko duen.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hondakinak biltzeko langileen grebari buruz galdetu du. Zerbait dakiten jakin nahi du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du enpresa negoziatzen ari dela. Kuadrilla eta udalak gara lehen interesatuak zerbitzuak funtzionatzea, baina enpresak negoziatu behar du, langileekin harremanak enpresari baitagozkio. Orain arte enpresak aplikazioko hitzarmen kolektiboa bete du, hain zuzen ere, indarreko adjudikazioan dagoena, eta orain, kontratua amaitzen denez, aplikazioko hitzarmen kolektiboa ikuskatzeko negoziazioak hasi dira. Guztiek espero dute negoziazioak bide onetik amaitzea, hortaz, negoziazio horien ondorioz, Kuadrillak hurrengo kontratuan ordainketa-betebehar gehiago izango ditu, lizitazio berrian hitzarmen berria aintzat hartu beharko baita eta Udalak erreparatu beharko dio zerbitzuari jasanaraziko dizkion tasak kalkulatzeko.



Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) honako hau kontsultatu dio idazkari andreaki: kontratu bat adjudikatzen duen tokiko erakundeak kontratuaren indarraldian enpresari ordaintzen dion zenbatekoa gehi dezakeen negoziazio kolektiboen ondorioz langileen kostua garestiagoa delako.

Idazkari andreak azaldu du bere ustez ezinezkoa dela. Izan ere, kontratuaren indarraldian zerbitzua ematen duen enpresari adjudikazioaren zenbatekoa ordaindu behar zaio. Horrez gain, duela asko ezin daiteke prezioen urteko ikuskapena egin, nahiz eta lehen egin ahal zen. Duela urte batzuetatik hona Estatuko lege batek debekatu du. Horregatik, zerbitzu baten truke ordaintzen dena ezin daiteke gehitu prestazioa aldatzen ez bada, hau da, xedea edo prestazioa gehitzeko ala maiztasunak handitzeko, eta abarrerako ez bada. Are okerrago, xedea eta prestazioa berdinak badira, kontratuaren indarraldian prezioa betiere adjudikatutakoa izango da.

- Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko berriki Lakuara joan zela Luliaondoko anbulatorioa Osakidetzari lagatzen zaiola sinatzeko.

Jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeia eta hogeita lau minutu direnean, eta aztertutako guztia jasota gera dadin, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko ekainaren hogeita hiruan.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta

Stua.: Naiara Lazpita Marcos